

HERRITARREN FOROAREN BILERA

Bilera antolatu duen organoa:	Hondarribiko Udala
Deialdia egin duena:	Hondarribiko Udaleko Ingurumena eta Agenda 21 departamentua
Data, tokia eta ordua:	2010eko abenduak 15 Hondarribiko Udaleko Udalbatza Aretoa 19:00
Harremanetarako pertsonak:	Ingurumena eta Agenda 21 departamentua: - Naroa Susperregi Idazkaritza Teknikoa (Izadi 21): - Eburne Simón
Telefonoak:	943 111 242 (Naroa Susperregi) 943 492 215 (Izadi 21)
Helbide elektronikoa	ingurumena@hondarribia.org (Naroa Susperregi) info@izadi21.net (Izadi 21)
Gai-zerrenda:	<ol style="list-style-type: none"> 1. Agenda 21en Ekintza Planaren ebaluazio prozesuaren berri ematea. 2. Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aurrerapen dokumentuaren aurkezpena, Pacho de León arkitektoaren eskutik. 3. Norberak lekarkeena

PARTE HARTU DUTE:

- Ibon Izaguirre Suso
- Juan Carlos Marcos
- Pedro Gonzalez
- Juan Amunarriz
- Juan Oiarzabal
- Belén Martínez (ACUBI)
- Xabier Sagarzazu (Noticias de Gipuzkoa)
- Mariano Alda Egea
- Iker Argote
- Elena Sarasola
- Gabriel Olazabal
- Txomin Aristondo
- Loli Gartzia
- José Luis Alberro
- José Ignacio Ceberio
- Jon Gurrutxaga
- Xabier Tife (Hamaikabat)
- Isabel Olazabal (Hamaikabat)
- Ion Elizalde (Hamaikabat)
- José Manuel Lizarraga (PP)

Bileran zehar landu beharreko gaiak aztertzen hasi aurretik, Ion Elizalde, Hondarribiko Udaleko 1. Alkateordea eta Ingurumen eta Agenda 21en departamentu burua, Herritarren Forora bertaratutakoei eskerrak eman dizkie bileran parte hartzeagatik eta ondoren gai zerrendako puntu bakoitzaren laburpen bat egin du. Azkenik, Ionek gai zerrendako puntu horiek sakondu dituzten hizlariak hitza pasa die (Edurne Simón batetik –Hondarribiko Agenda 21en Ekintza Planaren lehen ebaluazio prozesuaren azalpena- eta Pacho de León bestetik –udalerriko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorren Aurrerapen dokumentua-).

1. Agenda 21en Ekintza Planaren ebaluazio prozesua

2009ko martxoaren 12an Hondarribiko Udalbatzak Agenda 21en I. Ekintza Plana onartu zuenetik, Udala nahiz eskualde mailako bestelako erakundeak dokumentu horren edukia aurrera eramaten ari dira. Urte urte Ekintza Planeko zein ekintza burutu erabaki eta programatu ahal izateko, egokia gertatzen da Ekintza Planaren ezarpen maila aldeztu aurretik ebaluatzea. Dokumentuaren ebaluazioa egiteko orduan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Agenda 21en prozesuetan sartuta dauden udalei edo mankomunitateei beraien Ekintza Planak ebaluatu eta programatzeko laguntza programa bat eskaintzen die.

Hondarribiko I. Ekintza Plana onartu zenetik ia 2 urte igaro direnez, Udalak Aldundiak koordinatzen duen laguntza programa horrekin bat egitea erabaki zuen eta hortaz, aurreneko aldiz ebaluatzen ari da dokumentu estrategiko honen ezarpen maila. Ebaluazioa eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da Udaleko nahiz eskualde mailako erakundeetako arduradunen inplikazioa eta parte hartzea lortzea eta helburu hori erdiesteko, abenduaren 16an Ekintza Plana ebaluatu eta programatzeko aurkezpen bilera egin zen udaletxean. 2011ko martxorako ebaluazioaren emaitzak eskuartean izatea espero du Udalak eta hauek ondoren Herritarren Foroko kideei ere aurkeztuko zaizkie.

Gaurko bileran jorratu den gaiari dagokionez (Hirigintza Antolamenduko Plan Orokor berria), aipatu behar da Hondarribiko Agenda 21en Ekintza Planean badagoela hirigintza planeamendu iraunkorarekin zerikusia duen helburu estrategiko bat (4 LE: Hirigintza eredu iraunkor bat diseinatzea eta planifikatzea). Gainera, helburu hori betetzeko asmoz, Ekintza Planak 4 jarduera programa barneratzen ditu:

- Hiriaren neurrigabeko handitzea eragozteko eta hiri dentsitate egokiak bultzatzeko programa.
- Lurzoruaren erabilera arrazionala eta mistoa sustatzeko programa.
- Eraikinetan eraikuntza eta diseinu iraunkorrak barneratzeko programa.
- Herriko kultur ondarea kontserbatu eta indartzeko programa.

Azkenik, aipatu behar da udalerriko ingurumen ondarearen babesa sustatzen duen helburu estrategikoak ere (6 LE: Udalerriko natura ingurunea babestea eta bere baloreak ezagutzera ematea) hirigintza planeamenduan kontuan hartu beharreko ingurumen irizpideei buruzko hainbat ekintza barneratzen dituela.

2. Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aurrerapen dokumentuaren aurkezpena, Pacho de León arkitektoaren eskutik

Hirigintza planeamenduan ez da erraza gertatzen lurralde antolaketarekin zerikusia duten inguruabarrak ingurumenaren babesarekin harremana duten inguruabarrekin bateratzea, Udalak Plan Orokorra idazteko orduan udalaz gaindiko legedia ere bete

behar duelako. Hori horrela, aipatzekoa da edukiaren aldetik elkarren artean kontraesanen dauden lurralde arlokako zenbait plan badaudela.

Txingudiko Babeserako Plan Bereziari dagokionez, berau udalerriko Plan Orokorraren menpe geratzen da eta plan horren edukia eralda daiteke (Hondarribiko Udalak Eusko Jaurlaritzarekin bilera bat izan du Plan Bereziaren hainbat puntu zehatz aldatu ahal izateko aukeraz hitz egiteko). Ildo honetan, Udalak Txingudiko hezegunea sendotzeko eredu zehatz bat proposatu dio Eusko Jaurlaritzari.

Aurreko hirigintza planeamendu orokorra (1997 onartutako udal planeamenduko arau ordezkatzailleak) bere funtsari dagokionez bete egin dela baieztatu daiteke, ia bere osotasunean aurrera eraman baitu Udalak. Gauzatu ez den oinarritzko elementua Zubietako eremuari dagokion garapen industrial eta teknologikoaren plana izan da (planari lotutako esku-hartze aukerak gai honetan eskumena duten erakundeak ari dira une honetan osatzen eta lotzen). Era berean, aurreko planeamendutik gauzatzeke dagoen beste eremuetako bat Mendelu eta ibarraren artean kokatzen dena izango litzateke (ubidea eta aireportuaren inguruak).

Etxebizitza-politikaren esparruari erreparatuz, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren bidez hirigintza garapen trinkoa eta dentsitate altuagokoa sustatu nahi du Udalak (lurzoruaren okupazioa ahalik eta txikiena izatea bultzatuz, etxebizitzaren dentsitatea areagotuz eta motordun ibilgailu pribatuaren erabilera murrizteko neurriak hartuz –garraio publikoaren eskaintza hobetuz, esaterako-).

Ingurumen izaera duten proposamenei dagokionez, arlo honetan eskumena duten udalaz gaundiko Herri Administrazioek egindako proposamenak barneratze ditu Hondarribiko Udalak (Jaizkibelgo Batasunaren Garrantzizko Lekuari Babes Berezia ematea –horrela, Udalak gunen natur ondarearen babesa sustatu nahi du, itsasertzera iristeko oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko esku-hartzeak soilik baimenduz-, itsasargia kokatzen den zonaldean jolaserako eremu bat eraikitzea, portuaren eremua sendotzea, hondartzara eta portura begira dauden itsaslabarren zonaldeari Babes Bereziaren Eremuaren izendapena ematea, Jaizkibelgo hegoaldeko mendialdean kokatutako bertako basoen zonaldeari Baso Eremuaren izendapena ematea eta iparraldeko mendialdeari Nekazaritza eta Abeltzaintzarako Eremuaren izendapena esleitzea, etab.). Plan Orokorrari lotutako ingurumen inaktuaren ikerketa Plan Orokorraren Aurrerapen dokumentuarekin batera aurkeztuko du Udalak.

Honakoak dira Hondarribiko Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorraren Aurrerapenak jasotzen dituen hiri garapen berriak:

- Basakoko esku hartze berrirako eremua: Egoitzarako garapen berria.
- Hiriaren erdigunea: Udalak ez ditu garapen berriak aurreikusten eremu honetarako, nahiz eta aurreko hiri planeamendutik gauzatzeke dauden garapen batzuk aurrera eramatea geratzen den (Muliarte, Presa, Damarri eta Maddalen Karrika).
- Landazabaleko eremua: Esparru honetan eraikigarritasuna handitu nahi du Udalak gaur egun eraikigarritasun txikiko eremutzat jotzen baita (esparru honek duen kalitatea handia denez, eraikigarritasunaren dentsitatea handitzea ahalbidetu nahi da).
- Zimizarga auzoa: Epe luzera begira, Tudeleneako eremuan etxebizitzak eraikitzea aurreikusten da (Zimizargarantz begira dagoen zonaldea).
- Txingudiko Babeserako Plan Bereziaren nekazaritza babesteko eremu moduan izendatutako gunek: Kostan eraikigarritasuna sustatu nahi du Udalak – Gabarraritik aireportuaren zonaldera arte, San Engraziako eremua eta Kostatik aireportura doan eremua-. Txingudiko Plan Bereziaren barneratutako

gainerako lur zatia padura moduan eta udalerrian sartzeko ikuspegi/eszena moduan berreskuratuko litzateke. Azken honen helburua hiriaren sarrera eremua diseinatzen amaitzea izango litzateke (ingurumenaren ikuspuntutik, padura/hezegune eremua berreskuratuz nekazal lurrak okupatzea konpentsazio neurri moduan har daiteke). Aldi berean, Lau Haizetako eremu guztia Txingudiko Plan Bereziko esparru bezala barneratuko litzateke. Hau da, Plan Orokorraren Aurrerapen dokumentuan Txingudiko hezegunea Jaitzubiako padurekin lotzea proposatzen da. Horretarako, aireportuko eremua (Mendelu) libre geratu beharko litzateke Plaiaundi eta Jaitzubia lotuko lukeen parkea sortu ahal izateko. Pacho de León arkitektoaren hitzetan, nahiz eta aireportua egungo egoeran mantendu, inguru horretan kokatutako etxebizitzek (aireportuaren zortasunaren eraginpean aurkitzen diren etxebizitzak -Labreder eta Amute Berri-) eremu horren hirigintza garapenaren finkapena oztopa ez dezaten, gai honetan eskumena duten erakundeek beharrezkoak diren neurriak hartu beharko litzateke. Baina kasu horretan, ez genuke ahaztu behar epe luzerako helburua Jaitzubia eta Plaiaundiren arteko lotura lortzera bideratutako ingurumen berreskuratze lanak aurrera eramatea izango litzatekeela. Herri Administrazio eskumendunek aireportua egungo ezaugarriekin mantentzea erabakiz gero edo bestela, azpiegitura hau handitzea erabakiko balute, Mendelun bizi diren biztanleak beste nonbait birkokatu beharko lirateke, eremu horretan dagokion eraikitze lanak gauzatzeko beharra sortuaz.

- Zubieta eta Urdanibiako eremuak: Miramongo parke teknologikoa (Donostia) Bidasoa-Txingudi eskualdean handitu ahal izateko eta kualifikatutako lanpostuak sortzeko proiektua bideratzen ari dira une honetan eskumena duten erakundeek. Era berean, Plaiaundin kokatutako kirol ekipamenduak Zubietako parke teknologikora lekualdatzea aurreikusten da.
- Gaintzurizketako zonaldea: industria, zerbitzuak eta bestelako jarduerarekin zerikusia duten hirigintza garapenak aurreikusten dira eremu honetarako baina beti ere, Jaizkibel mendia eta Aiako Harria Parke Naturalaren arteko korridore ekologikoak suposatzen dituen mugak kontuan hartuz.
- Eusko Jaurlaritzak Gabarrari eta Kosta arteko eremurako planteatutako hirigintza esku-hartzeari uko egingo balio, Hondarribiko Udalak eraikuntzarekin zerikusia duten 2 esku-hartze berri proposatu beharko litzateke; batetik, Labreder eta hilerria inguratzen dituen mendialdean, eta bestetik, Amute-Berrin (Frantziskotarren komentu zaharrean).

Herritarren Forora bertaratutako herritarrei hitza pasa aurretik, Pacho de León arkitektoak mugikortasuna eta garraioarekin zerikusia duten hirigintza planeamenduari lotutako beste proposamen bat azaldu du. Ildo honetan, arkitektoak adierazi du metroa Hondarribira ekartzea aukera garestiegia eta justifikazio nahikorik gabekoa izango litzatekeela (Eusko Jaurlaritzak ingurumen arloko administrazio-izapideei hasiera eman die). EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Arloko Planari dagokionez, aipatu Planak Txingudiko badia inguratuko lukeen tranbia eraikitzea proposatzen du. Hondarribiko Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrean azken proposamen horri lotutako 2 alternatiba barneratzen dira:

- Tranbia ez eraikitzea
- Tranbia hiriko diseinuan barneratzea. Horretarako, "topoa" erabil liteke azpiegitura hau "Tram-Train" erako azpiegitura batean bihurtzeko ("trena-tranbia" -trena eta tranbiaren arteko irtenbide mistoa-). Azken hau eskualdeko udalerriek dituzten antzerako hiri ereduentzat sistema eraginkorragotzat eta erabilgarriagoztat jotzen da.

3. Norberak lekarkeena

Jarraian zerrendatzen dira Herritarren Foroko bilerara bertaratutako herritarrek planteatutako galdera edo zalantza nagusiak eta udal ordezkariak emandako erantzunak:

- Nola gauzatuko da Txingudiko Babeserako Plan Bereziaren eraldaketa? Aireportuaren handitze lanetatik eratorritako ondorioak Plan Bereziaren barneratzea aurreikusten du Hondarribiko Udalak, eragindako etxebizitzaren desjabetzeak ere kontuan hartu beharko direla ahaztu gabe. Udalak, era berean, oinezkoen bide bat eta bizikleten ibilbide bat eraikitzea proposatzen du eremu honetan, Txingudiko paduren ertzetik igaroko litzatekeena (aisiarako oinezko eta bizikletentzako bidea izango litzateke, heze gunearen ertzetatik eta babestutako zonaldearen bazterretik pasako litzatekeena). Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak oraingoz ez du proposamen horren inguruko erantzunik eman.
- Plaiaundi eta Jaitzuria lotuko lukeen korridore naturalaren proposamenak azkenean aurrera egingo balu, nondik igaroko litzateke udalerrira iristeko sarrera berria? Erdetik igaroko litzateke, beti ere, N-1 eta N-638 errepideetarako sarrerak mantenduz. Dena den, gai hau aurrerago aztertu beharko litzateke eta eragindako Herri Administrazioen arteko akordioa lortzera jo beharko luke Udalak. Azpimarratu behar da Labreder eta Amute-Berriko esparruei dagokionez aurkeztutako alternatibak ingurumen eta paisaiaren babesaren ikuspuntutik esku-hartze gogorragoak suposatuko lukeela (hau da, inpaktu handiagoa eragingo luke alternatiba horrek eta Udalak berau gauzatuko luke soilik Kostako eremurako egindako proposamena Eusko Jaurlaritzak atzera botatzearen kasuan).
- Ingurumen gaien eskumena duen organoak zein epe izango luke Udalak egindako proposamenei erantzuteko? Ez dago horretarako epe zehatzik eta gerta liteke Eusko Jaurlaritzak ez erantzutea. Pacho de Leonek adierazi du ingurumen organoak txosten bat idatzi duela eta dokumentu horren edukia ez dela negatiboa izan baina txostenak ez duela gaien sakontzen. Horrekin batera, Udalak dagoeneko hainbat bilera izan ditu Eusko Jaurlaritzarekin gai honen inguruan eztabaidatzeko. Hondarribiko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorren Aurrerapen dokumentua eta ingurumenaren gainerako eraginaren azterketa 2011 urtearen hasieran aurkeztuko dira publikoki.
- Zein indarraldi izango du Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra? Dokumentu honen indarraldia berez 8 urtekoa izango litzateke, nahiz eta seguruenik Planaren edukia 15-20 urteren buruan amaitzea gerta daitekeen.
- Hondarribiko erdigunea oinezkoentzat jarri eta egokitze lanak nola eramango dira aurrera? Portu auzoaren peatonalizazioa zaila eta gatazkatsua gerta daiteke baina onuragarria izango dela baieztatu daiteke, motordun ibilgailuen trafikoa udalerraren kanpoaldera ateratzen lagunduko duelako. Era berean, Donostia kalearen azpiko aldean 600 autorentzako aparkaleku bat eraikitzea aurreikusten du Udalak eta aparkaleku honen artean Santiago kalean kokatuko litzateke, zonalde hori herritarren erabilerarako berreskuratzeko. Horrekin batera, mugikortasun iraunkorari lotutako bestelako irtenbide batzuk ere jasotzen dira, hala nola; tranbia eraikitzea, udalerriko eskolara joateko ibilbidea bizikletan egiteko aukera izateko, Donostia kalea igaroko lukeen bizikleta-bidea eraikitzea, etab. (tranbia ez eraikitzekotan, eremu hori autobus-bidea izateko egokitu daiteke).
- Plan Orokor berrian biztanleen hazkundera nolako izatea aurreikusten da? 8.000-9.000 biztanleen igoera eta etxebizitza bakoitzeko okupazioa 2,3 pertsonetako izanik, 2.300 etxebizitza eraikitzea aurreikusten du Udalak.

- Zer nolako esku-hartze gauzatuko du Udalak Benta zaharreko eremurako azkenean eremu hori aparkaleku bezala egokitzen bada? Gai hau erabakitzeke dago, oraindik itxi ez den eztabaida batekin harremana baitu.

Bilera gaueko 9etan amaitu da.